

«GASKOIAK LEZON ETA OIARSOKO BAILARAN»

1.— NORTZUK DIRA GASKOIAK?

Garai zaharretan euskal leinu ezberdinek hartzen zituzten lurraldeak oso zabalak ziren, beraien ondorengo garen gaurko euskaldunok ditugunak baino askoz zabalagoak. Kronista eta historiagile klasikoek diotenez, euskal lurrak ia Mediterraneo Itsasoraino iristen omen ziren ekialdetik, eta Loira ibaiaren ertzetaraino Iparraldetik. Beraiek esaten digutenez, bi Baskonia zeuden. Alde batetik Baionatik behera zabaltzen zena, (gurea) eta toki beretik Loira ibairaino zabaltzen zena bestaldetik. Bi Baskoniek historia ezberdina eduki zuten. Hegoaldekoa, Baionatik honunzkoa, Iruñeako Erresumaren inguruan politikoki bildu zen bitartean, Iparraldeko Baskonia, Baionatik harunzkoa alegia, Akitaniako Dukerriaren inguruan egitaratu zen. Hegoaldekoan euskera gorde zen bitartean, Iparraldekoan galdu egin zen. Hegoaldekoaren ondorengo zuzena gaurko Euskal Herria dugun bitartean, Iparraldekoarena Akitania edo Gaskuña deritzana.

Zergaitik deitzen zaio Akitania? Bertan, bere lurretan, garai zaharretatik akitaniar izeneko euskal leinua bizi zelakotz. Eta zergaitik Gaskuña? Badirudi Gaskuña Baskoniarengandik datorkigula, zenbait aldaketa fonetikoren ondorioz (Baskonia —Waskonia— Gaskuña). Eta deitzen zitzaion Gaskuña, akitaniarrak baskoiak zirelakotz, baskoi leinukoak. Baskoi leinuaren adarrik haundienetako alegia.

Baina dana hau, oso garai zaharretan noski. Gero pixkanaka pixkanaka ba-koitzak bere bidea hartu zuen eta urrunduz joan ziren, bi herri arras ezberdinak emanaz: euskaldunak (euskaraz mintzatzen direnak) eta gaskoiak (gaskoiera izeneko erromantzeraz hitzegitzen dutenak). —Ikusi Zabarre—. «Gaskuñako euskal toponimiaren bila» /Lezo -2/ 1989— Beraz, denboraren poderioz bi herri mugatiar ezberdin aurkitzen ditugu, zenbaitetan elkarren arteko etsai, arerio suertatu direnak.

2.— GASKOIEN ETORRERA ETA FINKAPENA

1.100 - 1.200 inguruan eta gaur egun oraindik ezagutzen ez ditugun ezkutuko arrazoiak direla eta, itsasaldeko gaskoi franko Euskal Herrira jeisten hasi ziren. Lapurdi aldera lehendabiziz, Baiona, Miarritze, Aingelu eta inguruko herritara,

eta Gipuzkoako kostaldera geroagoz, batez ere Donostia eta Hondarribia artean dagoen isasertzera. Batzuek diotenez, Ingalaterraren aurkako gerratea izan zen emigrazio honen arrazoa. Beste batzuek berriz, garaiko gosete eta pobrezia defendatzen dute arrazoi nagusizat. Merkatalgune berrien beharra ere, askoren ahotan dagoen bitartean. Bata edo bestea, edo danak nahasirik, auskalo!, gauza da milagarren honen bigarren eta hirugarren ehunkaden artean izugarritzko gaskoi emigrazioa eman zela Gipuzkoako kostaldeetara, gehienbat Oiarso izeneko bailarara.

Erromatarren garaietatik ezagutzen genuen Oiarso edo Oarso izeneko bailara (baita hiria ere), Donostia eta Hondarribia artean luzatzen zen. Gaur historiagile askok pentsatzen dutenez, bailara honen ardatza, eta hiria xiur aski ere, Pasaia badiaren inguruan egongo zen; eta etorritako gaskoiek izena aldatu egin zioten, «Pasaje» (= pausua) izen berriaz berbataiatuz. Aipatu beharra dago bestalde, gehienak Donostia aldean edo Hondarribian kokatu baziren ere, asko eta asko Irunen, Pasai Donibanen, Lezon, Oiartzunen, Altzan,... finkatu zitzaizkigula.

3.— GASKOIAK GURE ARTEAN

Gipuzkoara iritsi zitzaizkigun gaskoia merkataria ziren oso, eta hasiera hasieratik saiatu ziren behin eta berriro, kairik garrantzitsuenak beren menpean ipiniz, inguruko euskaldunekin borrokatuz, pleiteatuz eta Nafarroako erregeen mesedea lortuz... beren merkatal nagusitasuna eskuratzeko. Donostia urte luzeetan beraien esku egon zen, baita Hondarribia ere, eta Pasaia portua beraien monopolioa bilakaturik.



Artzai gaskoia bere zango haundiekin

XI. mendeko bukaeran eta XII.eko hastapenetan, Donostiako Udala beraien eskutan egon zen, eta garaiko agirien bitartez, jakin badakigu beraiek osatzen zituztela gorporazio guztiak, baita alkatea eta guzti ere. Garaiko zenbait dokumentu gaskoieraz idatzi ziren eta historiagileek diotenez, garai haietako udal bandoak gaskoieraz burutzen ziren. Pixkanaka pixkanaka gaskoiak beren nagusitasuna galtzen joan ziren eta euskaldunak Donostia, garai bateko Izurun baskoi zaharra, bereganatzen. Gamonek esaten digunez, XIII. menderako gaskoiera arras galdurik omen zegoen Donostian, eta euskera berriro guztiz nagusi.

Hondarribia oso hiri gaskoia izan zen ere, eta gaur ezagutzen ditugu garai haietako zenbait testu gaskoieraz idatzirik. Oarsoko bailarari dagokionez, badirudi emigrazioa oso maila haundikoa izan zela, eta Pasaia badiako itsasertzeetan kokatu zirela, beren merkatal monopolioa eskuratu nahian, denboraren poderioz lortu egin zutena. Beraiek aldatu zioten itsas-sarrerari izena, Oarso zaharra betirako ezabatuz, eta bere tokian beren hizkuntzako «Pasaje» izenaz berbataiatuz. «Pasaje» hitzak gaskoieraz —pausua—, —itsas-sarrera—, adierazi nahi du, eta hitz hortatik datoz gaur egun bai euskeraz (Pasaia) eta bai espainieraz (Pasajes) darabilzkigun izenak.

Hemengo gaskoientzat «Pasaje»-a porturik nagusia bihurtu zitzaienten, eta pixkanaka pixkanaka hitzaren esanahia aldatuz joan zen, —pausua— adieraztetik —portua— adierazteraino alegia. Gaskuñan bitartean, bere lehenengo esanahiarekin gelditu bazen ere. Pasai Donibane, Errenteria, Altzako Herrera,... gaskoiez josirik zeuden bitartean, San Pedron eto Lezon beraien eragina ttikiagoa izan zen. Baina hala eta guztiz ere, esan beharra daukagu bi azken leku hauetan izandako eragina ez zela ere makala izan.

Bitxikerien artean aipa dezagun 1.611. urtean Jaizkibelen, akelarreetan biltzen ziren Hondarribiako sorginei zuzendutako dokumentu batetan eta 13 urtetako Ixabel Gartzia neskatilaren ahotik jasota, honako testu hau irakur daitekeela:

«... el diablo en gascón llamaba, veni
aca los de San Sebastián, los del Pasaje,
y luego en vascuence los de Irún,
los de Hendaya y les habló en algunas palabras...».

Badirudi 1.870. urtean zenbait sanjuandar gaskoieraz mintzatzen zirela, honela baieztatzen digu behintzat N. Soralezek. Joxe Joakin Otaegik bildu zituen geroxeago, 1.922. urtean, Pasai Donibaneko aiton-amonen artean oraindik gogoratzen ziren zenbait gaskoierazko esaldi.

«Marquelines cantes cinco al ardit».
«A maitines Zirriguilles, a misa mayor
sermón, a les escole a menjar gebolles».
«Marchairu, porte le chandelu».
«Anai, con in cuarto de leit, toute
les calder est plei hasta la chiminie».

1.918. urtean hil zen Luis Trezet aguazila, eta hurrengo urtean bere arreba zen Eudivigis Trezet, izan ziren Donibanen gaskoieraz mintzatu ziren bi azken sanjuandarrak. Badirudi bestaldez, «Fuenterrabia», «Herrera» eta «San Sebastián» izenek gaskoierarekin zer ikusirik daukatela. «Fuenterrabia» izanen litzateke gaskoiek «Hondarribia»-tik ateratako korruptela. Herrera beraiek sortutako eta bataiatutako auzotxo, eta «San Sebastián» beraiek ahoskatuta «Sansebastia» zenez gero, badirudi hortik aterako zela gero euskerazko DONOSTIA (Done - Sebastia), gaur egun Gipuzkoako hiriburuari izena ematen diona.

Izen zaharra berriz, Izurun izanen litzatekeelarik. Baina gure artean utzitako arrastoak askoz zabalagoak direnez, azter ditzagun bi arlo ezberdinetan: a) gure artean utzitako abizenak eta b) toponimoak (toki izenak).

a) ABIZENAK.—

Aiete	Laboa
Agramont	Leborde
Arnalt	Leonet
Artigas	Leonis
Arzak	Laborde
Bandres	Lobato
Bastida	Mans
Belok	Manso
Dabadie	Molet
Dabant	Montero
Daboz	Montoro
Dozagarat	Montorio
Enbeltran	Moraza
Engomez	Montoia
Gal	Morlans
Gros	Ontoria
Gallart	Ontorio
Galdos	Parada
Gamon	Perada
Garat	Perkaz
Gitet	Pollon
Gomiz	Polloe
Jamot	Portugal
Kamino	Pui
Karrera	Trezet
Karrere	Txibite



Gaskoien jazkera aberatsak, euskal kutsu haundikoak

B) TOPONIMOAK.—


Aiete (Donostia)	Monpas (Donostia)
Amara (= lintzura) (Donostia)	Montaot (Hondarribia)
Agramontene (Lezo)	Motako Gaztelua (Donostia)
Argelot (Hondarribia)	Panpiñot (Hondarribia)
Artiga (Irun)	Pasaia (Pasaje)
Bastida (Oiartzun)	Peliart (Lezo)
Belok (Donostia)	Polloe (Donostia)
Blaia (Irun)	Polluelo (Donostia)
Gros (Donostia)	Pontika (Errenteria)
Gomizena (Irun)	Portu (Irun)
Herrera (Altza)	Primaot (Hondarribia)
Higer (Hondarribia)	Puiana (Irun)
Jamotenea (Lezo/Bera)	Puio (Irun)
Kaskoitegi (Irun)	Sagues (Donostia)
Legamiz (Donostia)	Tonpes (Irun)
Lekaiena (Irun)	Txanaleta (Donostia)
Manteo (Donostia)	Txubillo (Donostia)
Miramón (Donostia)	Urgull (Donostia)
Molinao (Pasaia)	Ulia (Donostia)

Kontuan hartu beharra daukagu ere «Mira»- osagaia, daramaten izenak, gaskoieratik etorritakoak izan bait daitezke, halanola:

Altamira (Lezo)
Mirakruz (Donostia)
Mirakontxa (Donostia)
Miramar (Donostia)
Miramon (Donostia)

4.— GASKOIAK LEZON

Garai zaharretan gaur Lezo dagoen tokian bazeuden zenbait etxe eta baserri, lezoar biztanlerik zaharrenak arrantzaleak, artzaiak edo baserritarrak zirelarik. Danak euskaldunak, baskoi leinukoak, edota gure mugetan, Errenteria aldean genituen barduliar leinukoak ere. Baina gaskoien etorrerarekin portuak beste dimentsio berria hartu zuen, merkatal arloari dagokiona alegia. Bertan, gure artean, kokatu ziren gaskoiak portua kontrolatzen saiatu ziren hasiera hasie-



Hankapalu gaskoiak

ratik, eta hortarako bertako biztanleekin enfrontatu behar izan zuten etengabeko istiluak sortaraziz.

1.203. urtean azaltzen zaigu lehenengo aldiz gure herriaren izena, Alfontso IX.-ak Gillermo de Lazoni, herriaren agintea ematen dionean hain zuzen. Eta orain dator korapiloa, nire uste apalez «Lezo» izena edo «Lezon» ez bait dago euskaraz, gaskoieraz baizik. Lazon-ek edo antzeko zerbaitek, (Lezon, Lezeu,...) penditza edo ezponda adierazi nahiko luke gaskoieraz, eta horixe izango litzateke, garai hartan etorritako gaskoiek gaur Lezo herriak hartzen duen tokiari eman zioten izen toponimikoa; itsaso aurreko penditza, ezponda, magalea,... bait da. Eta lehen aipaturiko Gillermo de Lazon izango litzateke orduan, Lazon zeritzan tokiko jauntxoa. Ikusi —Joseba Presentación Barandiaran—. «Lezo izenari buruzko zenbait datu eta burutazio» Lezo-2/ 1.988.

Gaur egun, bailarako hizkeran, zaharrenek «lezoi» hitza erabiltzen dute euskeraz esanahi berberarekin (penditza, ezponda), eta espainieraz «lezón» hitza gauza bera adierazteko. Teoria honi jarraiki, euskerazko eta espainierazko hitzak gaskoierazko «lazon-lezon-lezeu...» hitzaren aldaketa fonetikoak izanen lirateke.

Baliteke ere, Lazon (Lezon, Lezo, Lezeu...), honera etorritako gaskoi baten abizena izatea, eta bere etxea egiterakoan (Lezo Zaharra, Lezo Haundia) toponimoa bihurtzea, eta denborarekin herriari bere izena zabaltzea. Bigarren teoria honekin ulertuko litzateke ere, zergaitik Blas de Lezo almiranteak, sanjuandarra izaki, eramaten zuen holako izena (de Lezo). Honekin ez bait zuen lezoarra zela

adierazten, Lezo (=Lazon) abizena zuela baizik.

Teoria bat edo bestea, baina nire ustez, «Lezo» gaskoieratik datorkigu, Pasaia «Pasaje»-tik datorkigun bezalaxe. Esan dezagun ere, «Lezo» ez dela Lezon daukagun gaskoi toponimo bakarra. Kale Nagusian dagoen «Jamot-enea» gaskoi baten etxea bait zen, bere izenak ederki adierazten digun bezala. (Beran badago etxe bat izen bera daramana, eta gaur bertako Kultur-Etxea bihurturik dagoena). Bestalde, Andreone azpian, kai aldean, bazeogen Portborda gaskoierazko izena zeraman untziola famatua, Jaizkibeleko «Allerru» eta «Tiñelu» gailur berak, baliteke ere gaskoieraz egotea. Eta gure baserrien artean asko eta asko dira gaskoi usaia daramatenak, halanola: Kabite (Kaita), Peliar, Torrejil, Minkura, Arkoll, Arkirun, Barunga, Udalamarta, Matejone, Altamira,... Gauza haundirik ezin da zehaztu, baina pista hor daukagu begi aurrean.

Lezoarron abizen zaharrak begiratzuz gero, hor azaltzen zaizkigu bestalde: Pui, Largo, Aurela,... (Ikusi —Lander Zurutuza—. «Lezoko Ohitura Ohizkoenak»—. Lezo-4/1.990).

Aipatu beharra daukagu oraindik herrian, baserriarren artean, bizirik dirauen «kaskoi» goitizena, garai batean «gaskoi» adierazi nahi zuena, eta gaur urteen poderioz «Kaxkagorra» adierazteko erabiltzen dutena. Bestaldetik, nik pentsatzen dudanez, euskararen barruan, gaskoierak bere eragina edukiko zuen ere. Hiztegiaren aldetik behintzat, ezin da zorigaitzez, gauza haundirik zehaztu. Nik zeredozer aipatzekotan, bailara osoan hainbeste erabiltzen den «laineza» (= harrokeria) hitz bitxia plazaratuko nuke. Badakit asko esan eta idatzi dela hitz honi buruz, baina nik nire aldetik, gaskoi jatorria emango nioke.

— JOSEBA PRESENTACION BARANDIARAN —

GASKOIEI BURUZKO BIBLIOGRAFIA:

- 1.— DARANATZ, J.B.— «Les gascons en Guipuzcoa»
Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, Arts et
d'Etudes Regionales de Bayonne. (Baiona)
- 2.— ETXEGARAI, Karmelo.— «Investigaciones históricas referentes
a Guipuzcoa»
- 3.— GAMON, J.I.— «Noticias históricas de Rentería» (1.930)
(XIX. mendeko hasieran idatzita)
- 4.— GAVEL, M.— «A propos des gascons en Guipuzcoa» RIEV (1925)
- 5.— LEMOINE, J.— «Toponymie du Pays Basque Français et de Pays de
l'Adour» (1.977)
«Toponymie du Langue d'Oc et de la Gascogne»
- 6.— LAKONBE, G.— «Un document sur les gascons de Pasajes»
RIEV (1.919)
- 7.— KAMINO, Dr.— «Diccionario geográfico-histórico de España»
«Historia de la ciudad de San Sebastián» (1.802)
- 8.— KRUTWIG, Federiko.— «Vasconia» (1.963)
- 9.— LOIDI BIZKARRONDO.— «Gaskoi toponimia Irunen» Plazara-2 (1.985)
- 10.— MUJIKA, Joxe.— «Los gascones en Guipuzcoa» (1.967)
- 11.— MUJIKA, Serapio.— «Los gascones en Guipuzcoa» (1.928)
«Monografía histórica de la villa de Irún» (1.903)
- 12.— MURUGARREN, Luis.— «Donostia» (1.978)
- 13.— PALAY, S.— «Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes» (1.961).
- 14.— SORALUZE, N.— «Historia de la provincia de Guipuzcoa» (1.864)
- 15.— ZABARRE.— «Gaskuñako euskal toponimiaren bila» Lezo-2 (1.989)

LEZORI BURUZ ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA:

- 1.— MARTINEZ ISASTI, Lope.— «Compendio Historial de Guipuzcoa»
V. kapitulua (1.625)
- 2.— PRESENTACION BARANDIARAN, Joseba.— «Lezoko baserrien altxorra»
Lezo-4 (1.990)
- 3.— PRESENTACION BARANDIARAN, Joseba.— «Lezo izenari buruzko zen-
bait datu eta burutazio»
Lezo-2 (1.989)
- 4.— ZURUTUZA, Lander.— «Lezoko deitura ohizkoenak» Lezo-4 (1.990)